



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/10/11

Aldundiak gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dagozan pertsonen artea eskintzeko eredu barria aurkeztu dau Batzarretan, "komunidade barruko hartu-emonak hobetuko dituana"

Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasunerako diputatu andreak, gizartean baztertuta geratzeko arriskuan dagozan pertsonen artea eskintzeko eredu "barria" aurkeztu dau gaur Batzar Nagusietan. Esan dauenez, "komunidade barruko hartu-emonak hobetuko ditu", esfortzuak egoitzen ereduaren zentretan ebazan egungo ikuspegia gaindituz.

Laespadak adierazo dauenez, eredu "abangoardiakoa eta aitzindaria" da. "Ehuneko ehuneko izaera publikoa" izango dauen zerbitzua izango da, eta bere jarduketaren eremua "komunidade ingurunean" mobilizatu da, hori delako "leku egokiena" norbanakoari zuzenduta egotea gura dan esku-hartzerako.

Horretarako, Aldundia, Durangon, Getxon, Barakaldon eta Bilbon egongo diran eguneko lau zentzoren irekieran oinarrituko da. Horretarako batzuek daborduko zabaldu ditue euren ateak, eta Eskualdeko zentroari jagokonez, "abenduan" jarriko dala martxan aurreikusten da.

Lehenengoak, Durangon dagon "Etxepel" zentroak, 14 plaza ditu. Bertan, Caritasek, gizarteratze arloko beharrak erantzungo ditu goizeko 09:00etatik aurrera. Astegunetan arratsaldeko 17:00etan itxiko da, eta asteburuetan 15:00ak arte egongo da zabalik. Aldundiak 181.858 euro inbertiduko ditu aurtan bertan.

Bigarren zentroa Getxon egongo da, eta, seguruenez "abenduan" jarriko da martxan. Bertan beste 14 plaza egongo dira, aurrekoan moduan, baztertzeko arriskuan dagozan 18 urtetik gorako pertsonen zerbitzua emateko. Kudeaketea Sortarazi erakundeak hartuko dau bere gain.

Hirugarren lekuan, Laespadak "Bidegerri" eguneko zentroan be eredu barria sartzea aurreikusten dau. Barakaldon dagon zentro horrek 30 pertsonari eskini ahal izango deutse zerbitzua asteleheneetik domekara, goizeko 08:30etik arratsaldeko 18:30era astegunetan eta 09:00etatik 17:00etara zapatu, domeka eta jaiegunetan. Maiatzetik abendura, Aldundiak 511.000 euro inbertiduko ditu.

Eta bukatzeko, Foru erakundeak beste baliabide bat aurreikusten dau, oraingo honetan 18 urtetik 24 urtera bitarteko gazteei artea eskintzeko. Bilbon egongo da, eta IRSE erakundeak kudeatuko dau. Izena "Beinke" da, eta gitxienez zortzi ordu zabalduko ditu egunean. Bertan, Aldundiak 700.000 euro inbertiduko ditu. Lau zentzoren arteko handiena izango da ahalmenari jagokonez, 50 plaza izango ditualako.

Laespadak gogorarazo dauenez, maila altuko eta ertaineko gizarte bazterketa arloko foru eskumenek –intentsidade gitxiak edo lehen arretakoak Udalen esku dagoz legez–, egoera zaurgarrian dagozan pertsonen "autonomia eta ahalduak bultzatuko dauen" artea eskatzen dabe. Horretarako "eguneko zerbitzu horreek" arreta "integrala, pertsonalizatua eta



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

komunitarioa” eskintzea bilauko dabe. “Ez da eguna pasetako lekua izango”, “laguntasuna eskiniko da, pertsona horreek euren bizitzako proiektua berreskuratu daien”, adierazo dau.

Eredu barria “atseginez” hartu daben Batzarretako taldeek egindako galderei erantzunez, Laespadak esan dau horren ezarpenak “ahalik eta arazo gitxien” eragingo dituala egungo sisteman, baina hirugarren sektoreko erakundeei eskaria egingo jake, zerbitzuan arretean emoten daben pertsonen behar dan titulua eukitea, ez orain arte gertatzen dan moduan”. Zerbitzua erabili ahal izateko, erabiltzaileei ez jake “eroldan antxinakotasunik” eskatuko, esan dau.

Esan dan moduan, batzarretako taldeek oso ondo hartu dabe eredia. Talde Mistotik, eskintzea norbanakoei zuzenduta egotea bultzatzen dabe, “baina arazoaren jatorria kontuan izanda”, Arturo Aldecoak adierazo dauenez, “erakundeak lagun egiten dauenean taldeak arretean eta arrakastea baldintzatzen ditualako”.

PP taldea “ia osorik” etorri da bat eredu barriagaz. “Ondo iruditzen jaku gizarteratsetik, gizarte inguruetik eta bizitza independentetik” behar egitea, adierazo dau Eduardo Andrések, kasu batzuetan “egoitzen egiturea beharrezkoa izan badaiteke be”. Holan, eredu barria indarrean sartzean egoitzetako plazak “ez dirala aldatuko” adierazo dau Laespadak.

“Oso albista onak dira”, adierazo dau Podemos Bizkaiako Asun Merinerok, eta ereduaren alde agertu da, “modernoagoa dalako” eta komunitadetan oinarritutako filosofiara hurbiltzen dalako. Halanda be, bere eretxiz, trantsizino prozesua “arazo txiki batzuk ari da sortzen” erabiltzaileen eta beharginen artean.

Talde sozialistaren aldetik, Juan Otermin batzordekideak esan dauenez, etorkizuneko eredia “koherentea” da Kartera Dekretuagaz eta Bizkaia Goazen 2030 estrategiagaz. Batzordekide sozialistaren eretxiz, aldetik “egoitzetan baino pertsonengan gehiago zentratu beharri” erantzuten deutso. Bere taldea eredu “ausart –legealdiaren erdian aurkezten da–, barritzaile eta abangoardiakoaren” alde “erabat” dagola adierazo dau.

Josu Unanue EH Bildu bozeroaleari, ez jaku larregi gustau eredia diseinatu “aurretik” saila bere taldeagaz eta hirugarren sektoreagaz hartu-emonetan jarri ez izana. Gainera, kritikatu egin dau ereduak genero ikuspegia izatea, oraindino Bardintasunaren inguruko Foru Araua onetsita ez dagonean, eta bere zalantzak agertu ditu Aldundiak plaza bakotxaren %100 ordainduko ete dauen eta Bilbon zentroren bat itxiko ete dan.

Irene Edesa jeltzaleak, bere aldetik, eredia “pertsonengan dagola zentratuta” azpimarratu dau, eta Foru Gobernuak gizartetik baztertuta geratzeko dagozan pertsonen “soslai barrietara” egokitzeko daukan ahalmena txalotu dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
11/10/2017

La Diputación presenta en Juntas un nuevo modelo de atención para personas en exclusión social que "favorecerá las relaciones comunitarias"

La diputada foral de Empleo, Inserción Social e Igualdad, Teresa Laespada, ha presentado hoy en Juntas Generales, a iniciativa propia, el “nuevo” modelo foral de atención a las personas que están en riesgo de exclusión social del cual ha dicho que “favorecerá las relaciones comunitarias”, superando la visión actual que centraba los esfuerzos en el modelo residencial.

Laespada ha tachado el modelo de “vanguardista y pionero”. Será un servicio que tendrá carácter “cien por cien público” cuya área de actuación se moverá en un “entorno comunitario” que supone “el lugar más idóneo” para una intervención que se pretende sea “individualizada”.

Para ello, la Diputación se apoyará en la apertura de cuatro centros de día que estarán situados en Durango, Getxo, Barakaldo y Bilbao. Algunos ya han abierto sus puertas, mientras que el centro de la Margen Derecha se prevé poner en marcha “en diciembre”.

En primer lugar, el centro de día “Etxepel” que estará ubicado en Durango cuenta con 14 plazas. En él, Cáritas atenderá necesidades de inclusión social desde las 9 de la mañana. Los días laborales cerrará a las 17:00 horas, y los fines de semana estará abierto hasta las 15:00 horas. La Diputación invertirá este año en él 181.858 euros.

El segundo centro se ubicará en Getxo y estará operativo previsiblemente “en diciembre”. Contará también con 14 plazas para dar servicio, como el anterior, a personas mayores de 18 años en riesgo de exclusión. Su gestión recaerá en la asociación Sortarazi.

En tercer lugar, Laespada contempla incluir en el nuevo modelo al centro de día “Bidegerri”. Ubicado en Barakaldo prestará servicio a un máximo de 30 personas de lunes a domingo, con horarios de 8:30 horas a 18:30 h. los días laborables y de 9:00 a 17:00 los sábados, domingos y festivos. Desde mayo a diciembre, la Diputación invertirá 511.000 euros.

Y, por último, la institución foral concibe un nuevo recurso, en este caso para atender a jóvenes de 18 a 24 años. Estará ubicado en Bilbao y será gestionado por la asociación IRSE. Se llama “Beinke”, abrirá como mínimo ocho horas al día y, en él, la Diputación invertirá 700.000 euros. Será el más amplio de los cuatro centros por capacidad ya que contará con 50 plazas.

Laespada ha recordado que las competencias forales dentro de la media y alta exclusión social – la de baja intensidad o atención primaria está reservada por ley para los ayuntamientos- exigen una atención a las personas más vulnerables “que favorezca su autonomía y su empoderamiento”. Para ello, estos “servicios de día” buscarán ofrecer una atención “integral, personalizada y comunitaria”. “No será un lugar para pasar el día”, sino que se les ofrecerá “un acompañamiento para que estas personas recuperen su proyecto de vida”, ha dicho.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

A preguntas de los grupos junteros, que han compartido "con agrado" el nuevo modelo, Laespada ha señalado que su implantación provocará "el menor desajuste posible" en el sistema actual, aunque se pedirá a las entidades del tercer sector que las personas que atiendan el servicio estén "perfectamente tituladas, no como ocurre ahora". Para acceder al servicio, a las personas usuarias no se les exigirá "antigüedad en el empadronamiento", ha dicho.

El modelo ha sido muy bien recibido por los grupos junteros. Desde el grupo Mixto, apoyan que la oferta pase a ser individualizada, "pero teniendo en cuenta el origen del problema", ya que según Arturo Aldecoa, "el grupo condiciona la atención y el éxito" del acompañamiento institucional.

El PP ha compartido en "casi su totalidad" el nuevo modelo. "Nos parece bien trabajar desde la integración, el entorno social y la vida independiente", ha dicho Eduardo Andrés, aunque en algunos casos "puede que sí sea necesario una red residencial", ha advertido. En este sentido, Laespada ha confirmado que las plazas residenciales "no variarán" con la entrada en vigor del nuevo modelo.

"Son muy buenas noticias" ha declarado Asun Merinero de Podemos Bizkaia, quien ha compartido el modelo por ser "más moderno" y acercarse a una filosofía comunitaria. Sin embargo, cree que el proceso de transición "está provocando algunos desajustes" en usuarios y trabajadores.

Por parte del grupo socialista, su apoderado Juan Otermin ha sostenido que el futuro modelo es "coherente" con el Decreto de Cartera y con la estrategia Bizkaia Goazen 2030. Para el juntero socialista, el cambio obedece "a centrarse más en las personas que en los centros residenciales". Ha mostrado el "total apoyo" de su formación a un modelo "valiente - se presenta en mitad de legislatura- innovador y vanguardista".

Al portavoz de EH Bildu, Josu Unanue, le hubiera gustado que el departamento contara con su formación "antes" de idear el modelo, al igual que con el tercer sector. Además, ha criticado que el modelo tenga un enfoque de género cuando aún no está aprobada la Norma Foral de Igualdad y ha mostrado dudas sobre si la Diputación pagará el 100% del coste de cada plaza y sobre si se cerrará algún centro en Bilbao.

Por su parte, la jeltzale Irene Edesa ha destacado que el modelo "esté centrado en las personas" y ha aplaudido la capacidad del Gobierno foral para adaptarse a los "nuevos perfiles" de personas en riesgo de exclusión social.